Código de validación/*Balidazio kodea*
3B3P4L1S031N376H0MOX

***UDALBATZARRAK 2019KO AZAROAREN 19AN EGINDAKO EZOHIKOA BILKURAREN HARTUTAKO ERABAKIAK***

**ACUERDOS DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA CELEBRADA POR EL PLENO DE LA CORPORACIÓN EL DÍA 19 DE NOVIEMBRE DE 2019**

| **Asistentes/*Etorritakoak*** |
|---|
| **ALCALDE/*ALKATEA*** |
| JUAN CARLOS ABASCAL CANDÁS |
| **CONCEJALES/*ZINEGOTZIAK*** |
| RICARDO MARTÍN LÓPEZ<br>MIGUEL LEDESMA PIÑEIRO<br>PAUL YARZA AGIIRREGOMEZKORTA<br>CARMEN MARÍA DEL RÍO CABRERO<br>JOANNA DÍAZ BENITO<br>JOL GUISASOLA GARAY<br>ARRITOKIETA ARAIZTEGI ARRIZABALAGA<br>SILVIA SERRANO GÓMEZ<br>JOSE MANUEL LÓPEZ CONDE<br>ALBERTO GARCÍA ABAD SÁNCHEZ<br>FRANCISCO JAVIER SÁNCHEZ GÓMEZ<br>MARIA URIONAGUENA ARANSOLO<br>JULEN DOMÍNGUEZ SÁNCHEZ<br>ROSA MARÍA CID SEARA<br>JOSE LUIS ARAUJO ARAUJO<br>BEATRIZ GÁMIZ MATA |
| **SECRETARIO/*IDAZKARIA*** |
| DANIEL SALAZAR IRUSTA |

| **Ausentes/*Etorri ez direnak*** |
|---|
| |

*Udaletxeko bilkura aretoan, 2019ko azaroaren 19an 19:00an, orrialdearen hasieran adierazten diren Udaleko kideak lehenengo deialdian bildu dira, Ezohikoa bilkuran.*

En el salón de sesiones de la Casa Consistorial, a las 19:00 del día 19 de noviembre de 2019, en primera convocatoria, se reúnen los/as miembros de la Corporación antes citados/as, en sesión

Extraordinaria.

*Idazkariak bilera hasteko behar besteko quoruma dagoela frogatu ondoren, Alkateak bilkurari hasiera eman dio eta publikoa dela adierazi du. Jarraian gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin dio.*

Una vez comprobada por el Secretariola existencia de quórum necesario para poder iniciar la sesión, el Alcalde abre la misma y la declara pública. Seguidamente se procede a tratar los asuntos incluidos en el Orden del Día.

1. ***BILKURAN DAUDEN PERTSONEI EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO EDOZEIN GAIREKIN ZERIKUSIA DUEN EDOZER GAUZA GARRANTZITSU JAKITERA EMATEKO ALKATEAREN GONBIDAPENA***

1. **INVITACIÓN A LAS PERSONAS ASISTENTES A QUE COMUNIQUEN CUALQUIER INTERÉS RELEVANTE QUE PUDIERA EXISTIR EN RELACIÓN CON CUALQUIERA DE LOS ASUNTOS INCLUIDOS EN EL ORDEN DEL DÍA DE LA SESIÓN**

*Bilkuran dauden pertsonei eguneko gai-zerrendako edozein gairekin lotutako edozein interes zuzen eta garrantzitsu jakitera emateko alkateak egin dien gonbidapenari pertsona horiek erantzun diote ez dela beraiengan gertatzen abstenitzera behartzen duen inolako arrazoirik.*

*Bilkura publikoa da eta herritarrei irekia.*

A la invitación del Alcalde para que las personas asistentes a esta sesión comuniquen si tienen un interés relevante en relación con cualquiera de los asuntos incluidos en el orden del día, responden que no concurre en ellas causa alguna que les obligue abstenerse.

La sesión es pública y abierta a la ciudadanía.

2. ***AZAROAREN 25ARI BURUZKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA PRESAZKO ARRAZOIENGATIK SARTZEA, ETA BEATRIZ GAMIZI AHALMENA EMATEA ADIERAZPEN HORI ORBE KARDINALAREN PLAZAN IRAKURTZEKO, 2019KO AZAROAREN 25EAN***

2. **INCLUSIÓN POR RAZONES DE URGENCIA DE LA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL RELATIVA AL 25 DE NOVIEMBRE Y FACULTAR A BEATRIZ GÁMIZ PARA LA LECTURA DE LA MISMA EN LA PLAZA CARDENAL ORBE EL 25 DE NOVIEMBRE DE 2019**

Código de validación/*Balidazio kodea*
3B3P4L1S031N376H0MOX

| ***BOZKETAREN EMAITZA*** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN** |
|---|---|
| *PSE-EE/PSOE: Aldekoak 7* | PSE-EE/PSOE: A favor 7 |
| *EH Bildu: Aldekoak 3* | EH Bildu: A favor 3 |
| *EAJ/PNV: Aldekoak 4* | EAJ/PNV: A favor 4 |
| *Elkarrekin Ermua: Aldekoak 2* | Elkarrekin Ermua: A favor 2 |
| *PP: Aldekoak 1* | PP: A favor 1 |

***Lehenengo erabakia:***

***“Azaroaren 25ari buruzko Adierazpen Instituzionala presazko arrazoiengatik sartzea, eta Beatriz Gamizi ahalmena ematea adierazpen hori Orbe Kardinalaren Plazan irakurtzeko, 2019ko azaroaren 25ean”.***

**Primer acuerdo:**

**“Inclusión por razones de urgencia de la Declaración Institucional relativa al 25 de noviembre y facultar a Beatriz Gámiz para la lectura de la misma en la Plaza Cardenal Orbe el 25 de noviembre de 2019”.**

***3. AZAROAREN 30EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA PRESAZKO ARRAZOIENGATIK SARTZEA***

**3. INCLUSIÓN POR RAZONES DE URGENCIA DE LA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL RELATIVA AL 30 DE NOVIEMBRE**

| ***BOZKETAREN EMAITZA*** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN** |
|---|---|
| *PSE-EE/PSOE: Aldekoak 7* | PSE-EE/PSOE: A favor 7 |
| *EH Bildu: Aldekoak 3* | EH Bildu: A favor 3 |
| *EAJ/PNV: Aldekoak 4* | EAJ/PNV: A favor 4 |
| *Elkarrekin Ermua: Aldekoak 2* | Elkarrekin Ermua: A favor 2 |
| *PP: Aldekoak 1* | PP: A favor 1 |

***Bigarren erabakia:***

***“Azaroaren 30eko Adierazpen Instituzionala presazko arrazoiengatik sartzea”.***

**Segundo acuerdo:**

**“Inclusión por razones de urgencia de la Declaración Institucional relativa al 30 de noviembre”.**

**4. *2019/10/29AN EGINIKO BILKURAREN AKTA ONESTEA***

**4. APROBAR EL ACTA DE FECHA 29/10/2019**

| ***BOZKETAREN EMAITZA*** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN** |
|---|---|
| *PSE-EE/PSOE: Aldekoak 7* | PSE-EE/PSOE: A favor 7 |
| *EH Bildu: Aldekoak 3* | EH Bildu: A favor 3 |
| *EAJ/PNV: Aldekoak 4* | EAJ/PNV: A favor 4 |
| *Elkarrekin Ermua: Aldekoak 2* | Elkarrekin Ermua: A favor 2 |
| *PP: Aldekoak 1* | PP: A favor 1 |

***Hirugarren erabakia:***

***"2019/10/29an eginiko bilkuraren akta onestea, Toki-erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Lege-erregimenari buruzko Araudiaren 36. artikuluan eta Udal Organoen Erregelamenduaren 43.ean ezarritakoari jarraituz".***

**Tercer acuerdo:**

**"Aprobar el acta de la sesión celebrada en fecha 29/10/2019, conforme a lo preceptuado en los artículos 36 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales y 43 del Reglamento orgánico propio de la Corporación".**

**5. *GERNIKAKO ESTATUTUAREN 40. URTEURRENA OSPATZEAREN INGURUAN EAJ/PNVK AURKEZTU DUEN MOZIOA***

**5. MOCIÓN PRESENTADA POR EAJ/PNV RELATIVA A LA CONMEMORACIÓN DEL 40 ANIVERSARIO DEL ESTATUTO DE GERNIKA**

| ***BOZKETAREN EMAITZA*** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN** |
|---|---|
| *PSE-EE/PSOE: Kontrakoak 7* | PSE-EE/PSOE: En contra 7 |
| *EH Bildu: Abstenzioak 3* | EH Bildu: Abstenciones 3 |

Código de validación/*Balidazio kodea*
3B3P4L1S031N376H0MOX

*EAJ/PNV: Aldekoak 4*

*Elkarrekin Ermua: Abstenzioak 2*

*PP: Kontrakoak 1*

EAJ/PNV: A favor 4

Elkarrekin Ermua: Abstenciones 2

PP: En contra 1

***Laugarren erabakia:***

***"Gernikako Estatutuaren 40. urteurrena ospatzearen inguruan EAJ/PNVk aurkeztu duen mozioa ezestea".***

**Cuarto acuerdo:**

**"Desestimar la moción presentada por EAJ/PNV relativa a la conmemoración del 40 aniversario del Estatuto de Gernika".**

***6. GERNIKAKO ESTATUTUAREN 40. URTEURRENA OSPATZEAREN INGURUAN PSE-EE PSOEK AURKEZTU DUEN MOZIOA***

**6. MOCIÓN PRESENTADA POR PSE-EE PSOE RELATIVA A LA CONMEMORACIÓN DEL 40 ANIVERSARIO DEL ESTATUTO DE GERNIKA**

| ***BOZKETAREN EMAITZA*** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN** |
|---|---|
| *PSE-EE/PSOE: Aldekoak 7* | PSE-EE/PSOE: A favor 7 |
| *EH Bildu: Kontrakoak 3* | EH Bildu: En contra 3 |
| *EAJ/PNV: Kontrakoak 4* | EAJ/PNV: En contra 4 |
| *Elkarrekin Ermua: Abstenzioak 2* | Elkarrekin Ermua: Abstenciones 2 |
| *PP: Kontrakoak 1* | PP: En contra 1 |

***Bosgarren erabakia:***

***"Gernikako Estatutuaren 40. urteurrena ospatzearen inguruan PSE-EE PSOE udal taldeak aurkeztu duen mozioa ezestea".***

**Quinto acuerdo:**

**"Desestimar la moción presentada por PSE-EE PSOE en relación a la conmemoración del 40 aniversario del Estatuto de Gernika".**

7. ***ASKATASUNA/KONPONBIDE POLITIKOAREN ALDE IZENEKO MANIFESTUARI BURUZ EAJ/PNV, EH BILDU ETA ELKARREKIN ERMUA ALDERDIEK AURKEZTUTAKO MOZIOA***

7. **MOCIÓN PRESENTADA POR EAJ/PNV, EH BILDU Y ELKARREKIN ERMUA RELATIVA AL MANIFIESTO LIBERTAD/POR UNA SOLUCIÓN POLÍTICA**

| ***BOZKETAREN EMAITZA*** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN** |
|---|---|
| *PSE-EE/PSOE: Kontrakoak 7* | PSE-EE/PSOE: En contra 7 |
| *EH Bildu: Aldekoak 3* | EH Bildu: A favor 3 |
| *EAJ/PNV: Aldekoak 4* | EAJ/PNV: A favor 4 |
| *Elkarrekin Ermua: Aldekoak 2* | Elkarrekin Ermua: A favor 2 |
| *PP: Kontrakoak 1* | PP: En contra 1 |

***Seigarren erabakia:***

***"Askatasuna/Konponbide politikoaren alde manifestuari buruz EAJ/PNV, EH BILDU eta ELKARREKIN ERMUA alderdiek aurkeztutako mozioa onestea".***

**Sexto acuerdo:**

**"Estimar la moción presentada por /PNV, EH BILDU y ELKARREKIN ERMUA relativa al manifiesto Libertad/Por una solución política.**

8. ***UNICEFEN HAURREN LAGUNARTEKO HIRIA IZATEKO DEIALDIAN TOKIKO GOBERNUAREN HAUTAGAITZA***

8. **CANDIDATURA DEL GOBIERNO LOCAL EN LA CONVOCATORIA DE RECONOCIMIENTO COMO CIUDAD AMIGA DE LA INFANCIA DE UNICEF**

| ***BOZKETAREN EMAITZA*** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN** |
|---|---|
| *PSE-EE/PSOE: Aldekoak 7* | PSE-EE/PSOE: A favor 7 |
| *EH Bildu: Aldekoak 3* | EH Bildu: A favor 3 |
| *EAJ/PNV: Aldekoak 4* | EAJ/PNV: A favor 4 |
| *Elkarrekin Ermua: Aldekoak 2* | Elkarrekin Ermua: A favor 2 |
| *PP: Aldekoak: 1* | PP: A favor 1 |

Código de validación/*Balidazio kodea*
3B3P4L1S031N376H0MOX

***Zazpigarren erabakia:***

***Kontuan harturik Haurren Lagunen Hiriak eta Haurren Lagunen Hiria aitortzeak herritarren interesak, oro har, eta haurrenak, bereziki, bultzatuko dituztela; Kontuan hartuta, gainera, gure udalerriak UNICEFek irekitako deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituela; eta gure herrian "haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa" zabaltzen eta aplikatzen aktiboki lagundu nahi dugula adieraziz:***

***Udalaren Osoko Bilkurari proposatzen diogu UNICEFi eskatzea hasi ditzala Haurren Lagunen Hiria aitorpena lortzeko izapideak, eta***

***Gure herriko haur eta nerabeen politikak garatzeko, etengabe hobetzeko eta berritzeko laguntza eta lankidetza izatea.***

**Séptimo acuerdo:**

**Considerando que Ciudades Amigas de la Infancia y el reconocimiento Ciudad Amiga de la Infancia favorecerán los intereses de la población en general y de la infancia en particular; considerando, además, que nuestro municipio cumple con los requisitos estipulados en las bases de la convocatoria abierta por UNICEF; y manifestando nuestra voluntad de contribuir activamente a la difusión y aplicación de la "*Convención sobre los Derechos del Niño*" en nuestra localidad:**

**Proponemos al Pleno Municipal solicitar a UNICEF iniciar los trámites para la obtención del Reconocimiento Ciudad Amiga de la Infancia; así como**

**Contar con su posterior apoyo y colaboración para el desarrollo, la mejora continua y la innovación de las políticas de infancia y adolescencia en nuestra localidad.**

***9. ADIERAZPENA 2019, AZAROAREN 30A HIRI HEZITZAILEEN NAZIOARTEKO EGUNAREN***

**9. DECLARACIÓN 2019, 30 NOVIEMBRE DÍA INTERNACIONAL DE LA CIUDAD EDUCADORA**

| ***BOZKETAREN EMAITZA*** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN** |
| --- | --- |
| *PSE-EE/PSOE: Aldekoak 7* | PSE-EE/PSOE: A favor 7 |
| *EH Bildu: Aldekoak 3* | EH Bildu: A favor 3 |
| *EAJ/PNV: Aldekoak 4* | EAJ/PNV: A favor 4 |
| *Elkarrekin Ermua: Aldekoak 2* | Elkarrekin Ermua: A favor 2 |
| *PP: Aldekoak 1* | PP: A favor 1 |

***Zortzigarren erabakia:***

***ADIERAZPENA 2019***

***Azaroaren 30a Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Egunaren***

***Aurtengo Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Egunaren leloak garrantzi handia hartu du: "Entzun hiriari, hiria aldatzeko".***

***Konpromiso irmoa hartzen: dugu:***

***"Hiriari entzuteko eta hiria aldatzeko", ahots guztiak bilduko dituzten eta inor atzean utziko ez duen hiri bat sortzeko aukera emango diguten eraikuntza demokratiko eta parte-hartzaileko espazioak irekitzeko helburuarekin***

***Horrela, bat egingo dugu Hiri Hezitzailearen Nazioarteko Egunaren ospakizunekin.***

**Octavo acuerdo:**

**DECLARACIÓN 2019**

**30 noviembre Día Internacional de la Ciudad Educadora**

**El lema del Día Internacional de la Ciudad Educadora de la presente edición deviene especialmente relevante: "Escuchar a la ciudad para transformarla"**

**Nos comprometemos decididamente a:**

**"Escuchar a la ciudad para transformarla", con el objetivo de abrir espacios de construcción democrática y participativa que incorporen a todas las voces y que nos permitan crear una ciudad que no deje a nadie atrás.**

**Nos sumamos, así, a la celebración mundial del Día Internacional de la Ciudad Educadora**

**10. *AZAROAREN 25EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA "EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA"***

**10. DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DE 25 DE NOVIEMBRE "DÍA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES"**

| ***BOZKETAREN EMAITZA*** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN** |
|---|---|
| *PSE-EE/PSOE: Aldekoak 7* | PSE-EE/PSOE: A favor 7 |
| *EH Bildu: Aldekoak 3* | EH Bildu: A favor 3 |
| *EAJ/PNV: Aldekoak 4* | EAJ/PNV: A favor 4 |
| *Elkarrekin Ermua: Aldekoak 2* | Elkarrekin Ermua: A favor 2 |

Código de validación/*Balidazio kodea*
3B3P4L1S031N376H0MOX

| *BOZKETAREN EMAITZA* | RESULTADO DE LA VOTACIÓN |
|---|---|
| *PP: Aldekoak 1* | PP: A favor 1 |

***Bederatzigarren erabakia:***

***AZAROAREN 25EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA***

***"EMAKUMEEN AURKAKO INDARIKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA"***

***INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMEI ERREPARAZIORAKO TOKIKO EKINTZAK***

***Azaroaren 25a (Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna) dela-eta, indarkeria mota honen egitura-izaera nabarmentzen dugu, eta gure konpromisoa agertu nahi dugu emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizarte bat eraikitzeko. Era berean, nazioarteko esparru juridikoarekin bat etorrita, berresten dugu beharrezkoa dela ekintzak proposatzea esku-har t zearen alar guztietan: prebentzioa, hautematea, arreta, babesa, koordinazioa eta justizia, arreta berezia jarrita biktimei eta bizirik atera diren pertsonei erreparazioa ematean.***

***Biktimei erreparazioarako printzipioak berekin dakar biktimak eskubide-urr aket a bizi aurreko egoerara lehengorat ze ko beharrezkoak diren ekinzak martxan jartzea. Indarkeria matxistaren biktimen kasuan, xedetzat hartzen da biktimaren bizi-baldintzak funtsean hobetzea, urratutako eskubideengatik erreparazioa jasota eta***

**Noveno acuerdo:**

**DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DE *25* DE NOVIEMBRE**

**"DIA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES"**

**ACTUACIONES LOCALES PARA LA REPARACIÓN DE LAS VÍCTIMAS DE VIOLENCIA MACHISTA**

**Con motivo del 25 de noviembre, Día Internacional para la eliminación de la violencia contra las mujeres, reiteramos el carácter estructural de este tipo de violencia y manifestamos nuestro compro miso con la construcción de una sociedad libre de violencia contra las mujeres. Asimismo, en línea con el marco jurídico internacional, reafirmamos que es necesario plantear actuaciones en todos los planos de la intervención: prevención, detección, atención, protección, coordinación y justicia, haciendo hincapié en la importancia de la reparación a las víctimas y supervivientes.**

**El principio de reparación de las víctimas supone poner en marcha las acciones necesarias con el fin de devolver a la víctima al estado previo a sufrir la violación de sus derechos. En el caso de las víctimas de la violencia machista, se entiende que el fin es la mejora sustancial de las condiciones de vida de las víctimas a partir de la**

*eragindako minetik berrezarrita. Era berean, ahalduntze-prozesua bultzatu behar da, indarkeria egoerari aurre egiteko gaitasuna eta autonomia indartu dezaten*

*Tokiko gobernuek biktimei arreta eskaintzeko alorrean aitortuta dugun erantzukizuna eta eskumena gure gain hartzen dugu, gure herri eta hirietan indarkeri .a matxista jasaten duten emakumeengandik hurbilen gauden erakundeak garelako. Politikarien eta teknikarien bultzada koordinatuarekin, tokiko erakundeen esku-hartzea funtsezkoa da erreparatzeko prozesuan, komunitateko bizitza berrezartzen laguntzeko eta biktimei erreparazio publiko eta soziala emateko, indarkeria matxistaren biktimen eta bertatik bizirik atera diren pertsonen inguru hurbilenean*

*Horren ildotik, Berdinsareako {Berdintasunaren aldeko eta emakumeekiko indarkeriaren aurkako Euskadiko udalen sarea) udaletako berdintasun-teknikarien lana oinarrizkoa eta balio handikoa da, udaletan ekintzarako orientazio eta irizpide komunak eskaintzeko, batez ere, udal txikienetan. Hain zuzen, erreparazioari dagokionez, Indarkeria matxistaren biktimei erreparaziorako tokiko ekintzen gida bat prestatzeko lanean ari dira, tokiko erakundeek indarkeria matxistaren biktimek ordaina jasotzeko duten eskubidea praktikan jarri eta zehaztu ahal izan dezaten, udal eskumenaren esparruan*

*Tokiko gobernuek konpromiso politikoak betetzeko jardun nahi dugu, eta, horren bidez, indarkeria matxistaren modu guztiak desagerrarazten lagundu, honela:*

**reparación de sus derechos violados y recuperación del daño causado. Así mismo, se ha de apoyar el proceso de empoderamiento que refuerce su capacidad y autonomía para superar la situación de violencia.**

**Los gobiernos locales asumimos la responsabilidad y competencia reconocida en materia de atención a las víctimas, por ser las instituciones más cercanas a las mujeres que sufren violencia machista en nuestros pueblos y ciudades. Bajo el impulso coordinado del personal político y técnico, la intervención local en reparación resulta clave para ayudar a la restitución de la vida comunitaria y la reparación social y pública en el entorno más cercano de las víctimas y supervivientes de la violencia machista.**

**En este sentido, el trabajo de las técnicas municipales de igualdad en Berdinsarea (Red de Municipios Vascos por la Igualdad y contra la violencia hacia las mujeres) es fundamental y valioso para proveer a los ayuntamientos, especialmente a los de menor tamaño, de orientación y criterios comunes de actuación. En concreto, en el ámbito de la reparación, se trabaja en la elaboración de una Guía. de Actuaciones Locales para la Reparación de las víctimas de Violencia Machista, para que las entidades locales puedan llevar a la práctica y concretar el derecho de reparación de las víctimas de violencia machista, en el ámbito de competencia municipal.**

**Los gobiernos locales queremos actuar para cumplir los compromisos políticos, y con ello poder contribuir en la erradicación de todas las formas de violencia machista,**

- ***Biktimen eskubideak arreta-prozesu osoaren erdigunean jarrita, euren beharrizan eta eskariei entzunez eta arreta emanez.***

**Poniendo los derechos de las víctimas en el centro de todo el proceso de atención, escuchando y atendiendo sus necesidades y demandas.**

- ***Langile espezializatu eta kualifikatuak edukita, erreparazioaren ikusmoldetik, ikuspegi feministarekin.***

**Contando con recursos y personal especializado y cualificado, desde el enfoque reparador con perspectiva feminista**

- ***Erreparaziorako eta ahalduntzeko esku-hartze prozesu guztietan, kudeaketa eta azkartasuna bermatzeko lan eginez.***

**Velando por la diligencia y celeridad en todos los procesos de intervención reparadores y empoderadores.**

- ***Tartean sartutako erakunde guztiekin koordinatuz, arreta eta erreparaziorako baliabideak egituratzeko, indarkeria matxistaren biktimen egoera erabat lehengoratuko dela eta urratutako eskubideak berrezarriko direla bermatzeko.***

**Coordinándose con todas las instancias implicadas, para articular los dispositivos de atención y reparación que garanticen la recuperación integral de las víctimas de violencia machista y la restitución de los derechos vulnerados.**

- ***Talde feministekin eta tokiko emakumeen elkarteekin modu estuan lankidetzan arituta, berdintasun-politikak eta ekintzak diseinatzeko, biktimei eta bizirik atera diren pertsonei arreta eta erreparazioari dagokionez.***

**Cooperando estrechamente con las agrupaciones feministas y asociaciones de mujeres locales para el diseño de políticas de igualdad y actuaciones en materia de atención y reparación de las víctimas y supervivientes de violencia machista.**

- ***Era berean, dei egiten diegu herritar guztiei, udalerri guztietan A25 dela-eta antolatuko diren salaketa- eta aldarrikapen-ekintzetan modu aktiboan parte har dezaten.***

**Y así mismo, hacemos un llamamiento a toda la ciudadanía para que participe activamente en los actos de denuncia y reivindicación que se desarrollen con motivo del 25N en todos los municipios**

**11. *JOSÉ LUIS ARAUJO ARAUJOK PSE-EE(PSOE)REN HAUTAGAI-ZERRENDAKO ZINEGOTZI KARGUARI UKO EGIN IZANA JASOTA UZTEA***

**11.- TOMA DE RAZÓN DE LA RENUNCIA FORMULADA POR JOSÉ LUIS ARAUJO ARAUJO AL CARGO DE CONCEJAL DE LA CANDIDATURA PSE-EE(PSOE)**

| ***BOZKETAREN EMAITZA*** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN** |
|---|---|
| *PSE-EE/PSOE: Aldekoak 7* | PSE-EE/PSOE: A favor 7 |
| *EH Bildu: Aldekoak 3* | EH Bildu: A favor 3 |
| *EAJ/PNV: Aldekoak 4* | EAJ/PNV: A favor 4 |
| *Elkarrekin Ermua: Aldekoak 2* | Elkarrekin Ermua: A favor 2 |
| *PP: Aldekoak 1* | PP: A favor 1 |

***Hamargarren erabakia:***

***"1. Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra (PSOE) (PSE-EE/PSOE) alderdiaren hautagai-zerrendako José Luis Araujo Araujok bere zinegotzia karguari uko egin dionez gero, kargu hori hutsik dagoela adieraztea.***

***2. Aipaturiko bakantea Hauteskunde-batzorde Nagusiari jakinaraztea, kargua Pedro Gallego Monteirori, Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra (PSOE) (PSE-EE/PSOE) alderdiaren Ermuko zerrendako hurrengo hautagaiari, esleituz bakantea bete dezan".***

**Décimo acuerdo:**

**"1º. Declarar la vacante de José Luis Araujo Araujo producida por renuncia al cargo de concejal, de la candidatura del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra (PSOE) (PSE-EE/PSOE).**

**2º. Notificar la vacante a la Junta Electoral Central al objeto de que esa administración electoral proceda a cubrir la vacante, atribuyendo el escaño al candidato de la lista de la candidatura del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra (PSOE) (PSE-EE/PSOE) por Ermua, Pedro Gallego Monteiro".**

*Bilkura honetan aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, Alkateak bilkura bukatutzat jo du 20:20an, eta nik, Idazkaria*

No habiendo más asuntos a tratar, de orden del Alcalde se da por finalizada la sesión, levantándose la misma a las 20:20

Código de validación/*Balidazio kodea*
3B3P4L1S031N376H0MOX

*naizenez, guztiaren fede eman dut.*

*Akta honek zazpi orri dauzka alde bietatik idatzita eta 95etik 107ra zenbakituta.*

del día de la fecha de todo lo cual como Secretario doy fe.

Consta esta acta de siete folios, escritos por ambas caras, numeradas del 95 al 107.

Fdo./Sin.:
Alcalde/Alkatea
Juan Carlos Abascal Candás
22-11-2019 13:58

Fdo./Sin.:
Secretario/Idazkaria
Daniel Salazar Irusta
22-11-2019 13:46